

## PROGRAMA: EKIMEN EKINTZAILEEN SUSTAPENA

### Enpresak abian jartzeko eta sortzeko laguntzak

|                                |   |
|--------------------------------|---|
| Xedea                          | Laguntzak, lehenengo urtean zehar, 2020ko urriaren 13tik 2021eko irailaren 30era bitartean sortu den enpresa bat martxan jartzeko eta horren funtzionamendurako, enpresaren forma juridikoa gorabehera.   |
| Erakunde onuradunak            | <p>Honako hauek eskuratu ahalko dituzte atal honetan ezarritako laguntzen onurak: Bizkaiko Lurralde Historikoko nortasun juridikoko enpresak (banakako enpresaburuak eta profesionalak barne), ondasun-erkidegoek eta sozietate zibilek. Horretarako, baldintza hauek bete behar dituzte:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Jarduera ekonomikoetan alta hartuta egotea, 2020ko urriaren 13tik 2021eko irailaren 30era Bizkaiko Foru Ogasunean bitartean, egun biak barne.</li> <li>• Egoitza soziala eta zerga-egoitza Bizkaiko Lurralde Historikoan izatea. Eta, era berean, lantokia ere lurralde horretan izatea.       <ul style="list-style-type: none"> <li>• Alta ematen zaion jarduera ekonomikoa zuzenean lotuta egon behar da aurkeztutako negozio-planarekin.</li> <li>• Erakunde onuradunaren sustatzaileetako bat gutxienez:           <ul style="list-style-type: none"> <li>○ egoitza gutxienez 3 hilabete jarraian Bizkaian izatea eta ekonomia-jardueraren altaren aurre-aurrekoak..</li> <li>○ egiaztatu behar du langabezia, enplegu-hobekuntza (betiere, lan-kontratuak ez badu gainditzen hitzarmenean ezarritako lanaldiaren % 40) edo aldi enplegu-erregulazioko espediente batek edo enplegu-erregulazioko espediente batek eraginda dagoela enpresak ekonomia-jardueren gaineko zergan alta eman aurretik.</li> <li>○ eta autonomoen araubide berezian edo haren pareko mutualitatearen batean alta ematea, 2020ko urtarrilaren 13tik urriaren 2021eko irailaren 31a arteko epean, egun biak barne. Azken baldintza hori ez zaie eskatuko elkartutako langile-kooperatibei, ezta lan-sozietateei ere, baldin eta araubide orokorrean sartuta badaude.</li> </ul> </li> </ul> </li> <li>• Eta, gainera, sustatzaileetako batek, aurreko puntuan ezarritako baldintzak betetzen dituenak, banakako prestakuntza eta aholkularitza egin behar izan du 77/2021 Dekretuaren 1. ataleko erakunde onuradunekin.</li> </ul> <p>Diru-laguntzak jasotzeko eskabideak bidaltzeari dagokionez, pertsona sustatzaile batek ezingo du inola ere enpresa-proiektu baten baino gehiagotan parte hartu. 34/2019 Foru Dekretuaren eta 18/2020 Foru Dekretuaren kargurako diru-laguntza baten adjudikaziodun gertatu diren enpresak ezin izango dute parte hartu, ezta enpresa horien sustatzaileek ere.</p> |
| Diru-laguntzaren justifikazioa | <p>Ekonomia-jardueretan alta eman eta ondoko urtean zehar (urte bat, gehienez ere) Gizarte Segurantzaren, autonomoen araubide berezian edo haren pareko mutualitatearen batean egiten diren kotizazioen ordainketen egiaztapenak aurkeztuta egingo da.</p> <p>Halaber, onuradunak dagozkion zerga-betebeharrak eta tributu-beharrak betetzen dituela ere egiaztatuko da.</p>  |
| Diru-laguntzaren zenbatekoa    | <p>Diru-laguntzaren zenbatekoa 5.000 eurokoa izango da entitate onuradun bakoitzeko. Prestakuntza-ikastaroa eta aholkularitza egin ez duen baina Dekretuan ezartzen diren baldintza guztiak betetzen dituen bazkide edo sustatzaile bakoitzeko 2.000 euro igo ahalko da zenbateko hori; gehienez ere, bost bazkide edo sustatzaile.</p> <p>Erakunde onuradun bakoitzak gehienez jaso dezakeen diru-laguntza: 15.000 euro.</p>   |
| Araudia                        | <p><b>Bizkaiko Foru Aldundiaren 77/2021 FORU DEKRETUA, maiatzaren 25ekoa.</b></p> <p>Diru-laguntzak emateko, norgehiagoka araubidea erabiliko da.</p>   |
| Epeak.                         | <p><b>Ekintzak egiteko epeak:</b><br/>       2020ko urriaren 13tik 2021eko irailaren 30era bitartean. (biak barne)</p> <p><b>Eskabideak aurkezteko epea:</b> 2021eko irailaren 6an hasiko da, 8:00etan, eta 2021eko urriaren 1ean amaituko da, 13:30ean. Eskabideak eta gainerako dokumentazioa Enplegua, Gizarte Inklusioa eta berdintasuna sustatzeko Sailaren bulego birtualaren bidez aurkeztu behar dira <a href="https://web.bizkaia.eus/eus/hasiera">https://web.bizkaia.eus/eus/hasiera</a> "izapideak"en bidez.. Horretarako, beharrezkoa da sinadura elektronikoa izatea edo Bizkaibai zerbitzuan alta emanda egotea.</p>   |